


# HIRU KURKUILU

Gaur hiru kurkuilu\* pollit  
 ikusi ditut pasatzen,  
 ikusi ditut pasatzen.

Eta gero hiru bare  
 beti polliki ibiltzen,  
 beti polliki ibiltzen.

Azkenean lau musker ferde  
 iduzkitan lasai daude,  
 iduzkitan lasai daude.

\* kurkuilu : karakoil, barraskilo



## HELBURUAK

AKTIBITATEAK	ERABIL ETA LAN DAITEZKEEN JAKINTASUNAK	ERABIL ETA LAN DAITEZKEEN ZEHAR JAKINTASUNAK
IRUDITU, SENDITU, SORTU. Testua eta kantua gogoz ikasi. Zuzen kantatu.	<ul style="list-style-type: none"> <li>◆ Besteekin parte hartu gorputz adierazpen ihardueretan eta jokoetan, arau soil batzuen arabera, horien balioa onarturik.</li> <li>◆ Musika talde-ihardueretan parte hartu.</li> <li>◆ Botzarekin jostatu eta haren ahalak ikertu.</li> <li>◆ Bere burua espazioan eta denboran kokatu joko kantatu eta dantzatuen bidez.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>◆ Jokamoldea talde egoerari egokitu ; parte hartu ; besteekin harremanetan jarri ; besteari behatu, bestea onartu eta errespetatu.</li> <li>◆ Elgarrekilako bizitzaren arauak ulertu eta onartu, gogokoak ez direnak barne.</li> <li>◆ Estetikaren sendikortasuna ukan eta bere gostuak adierazi, beste obretan ere.</li> </ul>
MUNDUARI OHARTU. Hiru eta lau kopuruak bereizi.	<ul style="list-style-type: none"> <li>◆ Zenbaki prozedura bat (edo beste prozedura bat) obratu.</li> <li>◆ Zenbaki ezagutuen segida luzatu eta zenbatzeko baliatu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>◆ Oroimena erabili egoera ezagunetan oinarrituz.</li> </ul>
MINTZATZEN IKASI, IDAZMENARI OHARTU. Irudiaren ikustean kantuaren hitzak asmatu (kodetu eta deskodetu).  + ikus hizkuntza helburuak hurrengo orrialdean.	<ul style="list-style-type: none"> <li>◆ Hitza hartu eta molde ulergarrian bere burua adierazi.</li> <li>◆ Testu laburrak (olerkiak,...) erran eta gogoan atxiki.</li> <li>◆ Gauza, egintza eta sendimenduak izendatu eguneroko egoeretan.</li> <li>◆ Hiztegi zehatza gogoan atxiki eta doakion kontestuan erabili.</li> <li>◆ Gramatika arau batzuei ohartu (pluralaren marka,...).</li> <li>◆ Aditzen denboraldiak, izenordeak eta lokailuak aldatuz erabili.</li> <li>◆ Ikasi hiztegia beste egoera batzuetan baliatu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>◆ Ixtorioen, kantuen, olerkien... eta beste segiden gogoan atxikitzen trebatu.</li> <li>◆ Berdintasunak eta ezberdintasunak bereizi (itxurak/formak, koloreak, izariak, soinuak,...).</li> <li>◆ Agindu/manu bat ulertu eta bete.</li> </ul>
ELGARREKIN BIZI.	<ul style="list-style-type: none"> <li>◆ Elgarrekin bizitzeko arauak onartu.</li> </ul>	

## USTIAPENA (egin moldea)

**Lehen ariketa :** hurrek, marrazkien laguntzarekin (3 kurkuilu, 3 bare, 4 musker) kantua gogoz ikasten dute.

### **Bigarren ariketa :**

- Haurrak 3ko (kurkuilu edo bare) edo 4ko (musker) multzotan banatzen dira.
- Talde bakoitzak kantua antzezten du hautatu duen animalia multzoaren arabera.

Oharra. Kurkuiluen eta bareen bereizteko, bi trikotarekin/jertserekin egin daiteke : kurkuiluaren egiteko, pilota bat egin trikota/jertse batekin eta bestearen barnean eman. Konkorra trikota/jertsearen besoekin esteka/lot daiteke.

- Kantu denboran, hurrek kantuari doazkion marrazkiak erakutsi behar dituzte (bakoitzak bereak izanen ditu, marrazki handiak fotokopiagailuz tipiturik).
- Kantua entzun eta, hurrek kartak ordenatu behar dituzte, kantua segidaren ongi gogoratzeko.
- Bakoitzak bere kartak margo ditzake.

### **HIZKUNTZA HELBURUAK :**

1. *Denborazkoak :* Lehenik, gero, azkenik.
2. *Joskera:* : Barea margotzen dut.
3. *Manu/agindu anitz :* *Adib.* Lehenik barea margotzen duzue, gero kurkuilua, azkenik muskerra. Margotu eta, erranarazi : «Lehenik barea margotu dut».

Lan bera taldeka egin daiteke. Lehen taldeari manu bat eman : lehenik barea, gero muskerra, azkenik ... Bigarren taldeari beste manu bat eman : lehenik kurkuilua... Hirugarren taldeari beste manu bat : lehenik muskerra,... eta abar.

Margotu eta, talde bakoitzak besteei azaltzen die bere lana : «Guk, lehenik, barea margotu dugu...»

**Helburu orokorra :** zehar gaitasuna ⇒ Manuen/aginduen betetzea.

☺ **Kurkuiluak, bareak eta muskerrak margo itzazu emanak zaizkizun manuen arabera.**

### **Osatzeko ikus :**

→ *Barraskiloarena. Haur jolasen abestiak* KDa. Hik hasi. Xangorin.

→ *Kilim Okabeko gauak.* 16. orrialdeko olerki laburra. Manex Lanatua » Sapelar ». Maiatz.

